

## BILBAO EKINTZA EPEL

### IRAGARKIA

Bilbao Ekintza EPELen hutsik dagoen lanpostu bat oposizio-lehiaketako sistemaren bidez betetzeko behin bakarrik deitu den enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesu bereziaren **hirugarren ariketaren kalifikazioa (euskara proba)**

HAEEK euskara-probaren emaitzak jakinarazi ondoren, **Zuzenbideko eta kontratazioko teknikariaren lanpostu bat** (euskarazko nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin) jabetzan betetzeko deitu den enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesu berezia epaitzeaz arduratu den epaimahaiak honako hau xedatu zuen uztailaren 12an egindako bileran:

**Lehenengoa.-** Oposizioko **HIRUGARREN ARIKETARA** aurkeztu diren izangaiek lortutako kalifikazioa onartzea eta argitara ematea.

**Bigarrena.-** Kalifikazioaren aurkako erreklamazioak, erantsitako ereduaren arabera eta modu telematikoan aurkeztu ahal izango dira [ope@bilbaoekintza.bilbao.eus](mailto:ope@bilbaoekintza.bilbao.eus) helbide elektronikora idatziz edo aurrez aurre Bilbao Ekintzaren bulegoetan (Nafarroa kaleko 5. zenbakiko 2. solairua), bost egun balioduneko epean, 08:30etik 14:00etara, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita; hau da, 2024ko uztailaren 19an amaituko da epea.

**Hirugarrena.-** Idatzizko probara sartzeko jarraibideak eta puntuazioa honako hauek dira:

- Idazmeneko azterketa IVAPeko webgunetik deskargatu behar duzu, AZTERNET aplikaziotik:

<https://www.ivap.euskadi.eus/informazioa/zer-da-azternet/z16-a3azter/eu/>

www.euskadi.eus webgunetik ere sar zaitezke, "Nire Karpeta" gunetik:

<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu>

- Aplikazioan sartu ahal izateko elektronikoki identifikatu behar zara, NAN digitalaren bidez edo IZENPE-ren identifikazio digital baten bidez (BAKQ, adibidez). EAEko administrazioekin izapide elektronikoak izateko onartzen diren identifikazio txartelen zerrenda duzu hemen:  
<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>
- Behin AZTERNETen sartuz gero, egin klik ESKABIDEAK aukeran. Atal horren barruan Eskabideen jarraipena klikatu behar duzu eta parte dagokion deialdian klikatu. Hori egin eta gero, zure eskabidearen datuak agertuko zaizkizu eta pestaña baten emaitzak ikusiko dituzu. Klikatu hor eta azterketa deskargatu eta inprimatu ahal izango duzu.

Bilbon, 2024ko uztailaren 12an

ROSA ANA 2024.07.1  
YURREBAS 2  
O SESTAFE - 13:43:32  
30596010F +02'00'

EPAIMAHAIKO IDAZKARIA  
ROSA ANA YURREBASO SESTAFE

**Hirugarren ariketaren kalifikazioak**

EXPT.E. BE 2022-EST-0005

**ZUZENBIDEKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIA  
TÉCNICO/A JURÍDICO Y CONTRATACIÓN****AZTERKETALDIKO EMAITZA / RESULTADOS DE FASE EVALUACIÓN**

Deialdiaren erref. / Ref.Convocatoria: 3/B/00000434/2023060501

Zuzenbideko tek\_Bilbao Ekintza\_2024\_06\_Araba / Zuzenbideko tek\_Bilbao Ekintza\_2024\_06\_Araba

HE	NAN/DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Emaitza orok	Mintzarena	Idazmena	Irakumena	Entzumena
3	***5*602	<b>Perez</b>	<b>JIMENEZ</b>	<b>MARINA</b>	EZ AURKEZTUA		EZ AURKEZTUA	EZ AURKEZTUA	

**DEIALDI BATERATUAK  
ERREKLAMAZIOAK KUDEATZEKO PROZEDURA**

**Jarraibideak:**

Honako eskaerak egin ahalko dira:

**1.- Azterketaren emaitzaren aurkako erreklamazioa.**

Izan duzun emaitzarekin ados ez zaudela adierazten badiguzu, Epaimahaiak azterketa berraztertuko du eta hartutako erabakia idatziz jakinaraziko dizu.

**2.- Ahozko azterketaren grabazioa entzutea.**

- **Ahozko proba entzutea** eskatzen baduzu, IVAPEk jarriko ditu ahozko saioa entzuteko lekua, eguna eta ordua. Ez da azterketaren emaitzari buruzko azalpenik emango.

**Bete ezazu beheko taula:**

<b>Erakundea</b>	
<b>Hautaketa-prozesua</b>	
<b>Izen-abizenak</b>	<b>NAN zenbakia</b>
<b>Erreklamazioa zein hizkuntza-eskakizuni dagokion</b>	
1. HE <input type="checkbox"/> 2. HE <input type="checkbox"/> 3. HE <input type="checkbox"/> 4. HE <input type="checkbox"/>	

Honen bidez, nik, behean sinatzen dudan honek, erreklamazioa egiten dut adierazitako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azterketen behin-behinekoko emaitzen kontra eta epaimahaiari honakoa eskatzen diot:

	1. Epaimahaiak nire azterketa eta lortutako emaitza berraztertu ditzala.
	2. Epaimahaiak beharrezko izapideak egin ditzala ahozko azterketaren grabazioa entzun ahal izateko.

*Jarri "X" bat nahi duzun aukerara*

(e)n, 202 (e)ko arean (e)an

Sinadura